

# Landareak

JAKOBA ERREKONDO



**Lokia sartzeko.** Aranondo japoniarra (*Prunus cerasifera*) zahartu da, Donostian, makina bat juntadizo eta otorduri abaro emanaz. Parrila eta mahaia-aren artean dago, patxadatsu asko! Baina mahaioek ezin natural egon, nola hala mundura lotu behar, baldinbaitere! Argia, ordenadorea, telebista... aranondo-pera ekarri behar. Arbolaren abaroa nahikoa mundu ez, nonbait... Lokia arbolapean gauza bat da, eta lokia haren lepoan lotzea ondo bestelakoa. Lasaixea-go utzita ere ez du ez alde egingo! Nagusiari jarriko nioke nik... Zuhaitzaren azalaren barruko aldean dabil izerdia gora eta behera. Argazkikoa bezala estutuz gero ez da behar bezala ibiliko eta izerdi faltan, goiko adaburuak gose ederra igarriko du. Erabat ihartzeraino agian...

## 30

Azken aldi honetan, landare eta animalia guztiok egiten dugun gauza berbera egiteagatik, landare txar, maltzur, inbaditzaile... denetik deitu zaio panpa-lezka edo panpa-belarrari (*Cortaderia selloana*). Bere espeziea zabaltzeko borrokan iaioa da, haziak haizeak 30 kilometroraino eramanez dituzten prestazten ditu.

## Giroa erroiztuz gero

AURTEN Pelestrina sekula ezagutu gabeko urriko hosto gorritzea ikustera eramanez duen eguraldiak gobernatu du gorritze horixe bera. Ederra eta eskuzabala doan udazken giroak, jeneralean, goi eta mendietan erakusten ditu Oriako Aginagan omendu berria duten Alejandro Tapia margolaria- ren paletako kolore biziak. Aurten ondrosu hedatu ditu beheko bailaretan barrena, kresalak utzitako gatz pinportekin hostajea errioko ispiluan apaintzen duten basoetaraino.

Erretiroa hartzen ari diren hosto eta orrien ospakizuneko kolore besta eguraldiaren esku dago; tenperaturak behera, eguna moztu eta argia murriztu, neguteari buru egiteko jakien biltegia lepo eta berokien tarratak osatu behar ditu zuhaitzak. Horixe da udazken kolorea. Kolore horien aurtengo aparteko suaren zergatia eguraldiaren aparteko koska izan da; tenperaturak, erroiztu eta bat-batean jauzi galanta egin du, itsumustuan udako giro gozoetatik neguko freskuretara; argiak antzerako beherakada izan du, lipar bakar bateko tarterik gabe egun eguzkitsuetatik euriteetako zeharo goibeleterakoa. Koska honek daramatza koloreak itulan. Temperatura eta argiaren jaitsiera pixkanakakoa bada, hostoen kolorearen aldaketa ere halakoxea izango da. Jaitsiera hori tupustekoa bada, ezustean harrapatuko ditu zuhaitzak eta denek batera margotu beharko dute paisaia.

Zuhaitz jende batek horia eta laruaren urretik jotzen du. Kolore hori hostoan izaten da urte osoan, berdeak azpian, hankapean harrapatua ordea. Hotzak eta argi-peituak hostoa berdetzen duen klorofilaren ekoizpena eteten duenean aire azalduko dira hori-aireak. Karotenoak dira horiztatze horren arduradunak eta lizar, pago, urki, ezki, makal, zurzuri, astigar gutxi batzuk, gaztainondo, tulipero, sasi-akazia, platano, xarma, hurritz, sahats, zumar, zume, eta abar margotu dituzte.

Beste zuhaitz jende gartsuago batek gorrirako joera du, astigar gehienak, lertxuna, likidanbarra, haritzen aldra (kanduduna eta kandugabea, ametz arrunta eta ilaunduna, nortekoa edo amerikarra, erkametz...), gereziandoa eta sagarrondo tartean. Karoteno horiztatzailea urte osoan hostoan bada, hostoak gorritzen dituen antozianina udazkenean sortuko du landareak. Antozianina horixe bera da marrubiak, aranak edota sagarrak (Pelestrinaren marrak tartean) gorritzen dituenak.